# Prentsa oharra
# Nota de prensa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

## 2021eko udal zerga-arauak onartuta

*Presio fiskalaren handitzeak bat egiten du 2020rako aurreikusita dagoen KPIarekin (%1,1), eta aurreikusitako BPG (%1,8) baino txikiagoa da*

Donostiako Udalbatzarrak 2021eko udal zerga-arauak onartu ditu, gaur egin den iraileko ohiko udalbatzarrean. Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Jaime Dominguez-Macayak adierazi du, onartutako presio fiskalak bat egiten duela 2020rako aurreikusita dagoen KPIarekin (%1,1), eta aurreikusitako BPG (%1,8) baino txikiagoa dela.

Udal gobernuak zerga arauak oso gutxi aldatzeko proposamena egin zuen, eta gaurkoan tramitazioa amaitu da Udal gobernuaren eta oposizioko hainbat talderen arteko akordioarekin, hain zuzen ere, lau aldaketa egiteko. Eta horietako batek lotura du indarrean dauden zerga arauekin, eta zehatzago esanda, mahai eta aulkien gaineko tasarekin.

Hortaz, Udal gobernuak Elkarrekin Donostia udal-taldearekin akordioa lortu du, eta ondorioz, baiezko botoa emango dio aipatutako udal taldeak egindako zuzenketari, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonek aparkatzeko egoiliarren txartelaren gaineko tasan aurreikusitako igoera (%10) ez ordaintzeko.

Udal gobernua osatzen duten taldeek (EAJ-PNV eta PSE-EE) erdibideko zuzenketa adostu dute EH Bildu taldearekin, indarrean dauden mahai eta aulkien gaineko tasen hobarietan aldaketa egiteko. Gogoan izan, Udal gobernuak uda hasieran onartu zuela %66ko hobaria mahai eta aulkien gaineko tasan COVID19a dela eta terrazek izan duten jarduera ezari aurre egiteko. Horrenbestez, adostutako erdibideko zuzenketaren ondorioz, hobaria %66koa izaten jarraituko du 11 mahai edo gehiago duten ostalaritza establezimenduentzat, eta aldiz, %90koa 10 mahai edo gutxiago dutenentzat. Gainera, COVID19agatik astebete edo gehiago itxi behar izango duten ostalaritza establezimenduek %99ko hobaria izango dute tasa horretan, itxita dauden egun horiei aurre egiteko.

Era berean, Udal gobernuak beste bi aldaketa adostu ditu EH Bildu eta Elkarrekin Donostia udal-taldeekin, hain zuzen ere, indarrean sartzeko tramitazio berria beharko duten bi aldaketa. Alde batetik, pisu turistikoen jarduera-lizentzia lortzeko tasa %50 handitzeko proposamena; eta bestetik, obra handia eskatzeko baimenak duen tasa %3 handitzeko proposamena.

Ogasun eta Finantzetako Zinegotzi Jaime Dominguez-Macayak gogoratu du, zerga arauei proposatutako aldaketak oso txikiak direla. Izan ere, tasa gehienak - Ura, TAO, Garabia, jarduera lizentziak, ibiak -, eta zerga guztiak - IAE, Ibilgailuen gaineko zerga, ICIO eta Gainbalioen gaineko zerga -, OHZ izan ezik, bere horretan mantenduko dira.

Horiek horrela, Jaime Dominguez-Macayak honakoa azpimarratu du: "2021eko zerga arauek behar gehien duten pertsonak babesten dituzte, eta hiriko ekonomia-jarduerak kontuan hartzen dituzte, hain zuzen ere, konfinamenduak eragindako geldialdia gainditzen saiatzen ari den ekonomia-jarduera". Zehatzago esanda, Udal gobernuak aurreikusten du 1,7 milioi euro gehiago biltzea zerga arau berriekin, eta horrek

ahalbidetuko du, Jaime Dominguez-Macayaren ustez, Udalaren finantza-kaudimena, eta beraz, donostiarren bizi-kalitatea hobetzeko inbertsioak egiten jarraitzea.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

## Aprobadas las ordenanzas fiscales municipales para 2021

*El incremento medio de la presión fiscal equivaldrá a la subida media del IPC prevista para final de 2020 (1,1%) y está muy por debajo del PIB previsto, el 1,8%*

El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ha aprobado durante la sesión ordinaria del mes de septiembre, celebrada hoy, las ordenanzas fiscales municipales para 2021. El concejal de Hacienda y Finanzas, Jaime Dominguez-Macaya, ha señalado que "el incremento medio de la presión fiscal para la ciudadanía donostiarra será el equivalente a la subida media del IPC prevista para final de 2020 (1,1%), lo cual está muy por debajo del PIB previsto, el 1,8%".

La tramitación de las nuevas ordenanzas fiscales, que el Gobierno Municipal propuso modificar de forma muy limitada, ha finalizado con un acuerdo entre el Gobierno Municipal y algunos grupos de la oposición, para introducir 4 modificaciones, una de ellas relacionada con la bonificaciones propuestas en las ordenanzas fiscales en vigor sobre la tasa de mesas y sillas.

De este modo, ha logrado un acuerdo con Elkarrekin Donostia para votar a favor de la enmienda que presentó dicho grupo para que la tasa por la viñeta de aparcamiento de residente no se incremente el 10% previsto a las personas perceptoras de RGI y AES.

Asimismo, los grupos que conforman el Gobierno Municipal (EAJ-PNV y PSE-EE) han acordado una enmienda transaccional con EH Bildu para modificar las bonificaciones propuestas en las ordenanzas fiscales en vigor sobre la tasa de mesas y sillas. El Gobierno Municipal acordó a principios de verano una bonificación del 66% en la citada tasa por la falta de actividad durante los 4 meses en los que no han podido hacer uso debido a la COVID19, que seguirá siendo del 66% para los establecimientos hosteleros que tengan 11 mesas o más, mientras que para aquellos que tengan 10 o menos recibirán una bonificación del 90%. Además, aquellos establecimientos hosteleros que tengan que cerrar debido a la COVID 19 durante más de una semana, recibirán una bonificación del 99% de la tasa que se aplicará a los días que dure el cierre.

Del mismo modo, el Gobierno Municipal ha acordado otras dos modificaciones con EH Bildu y Elkarrekin Donostia que requerirán de una nueva tramitación para su aprobación y entrada en vigor. Se trata, por una parte, de una propuesta para incrementar un 50% la tasa por la emisión de la licencia de actividad para pisos turísticos; y por otra, del incremento de un 3% en la tasa por la solicitud de licencia para obra mayor.

El concejal de Hacienda y Finanzas, Jaime Dominguez-Macaya, ha recordado que "las modificaciones son muy limitadas, tanto en lo que a las tasas como a los impuestos se refiere. De hecho, el grueso de las tasas - Agua, OTA, Grúa, licencias de actividad, vados - y la mayoría de los impuestos - IAE, Impuesto de Vehículos, ICIO e Impuesto de Plusvalía -, salvo el IBI, se mantendrán tal y como estaban".

En este sentido, Dominguez-Macaya ha subrayado que "las ordenanzas fiscales para 2021 son unas ordenanzas que cuidan a quienes más lo necesitan y que tienen en cuenta a las actividades vinculadas a la actividad económica, que trata de recuperarse

tras el parón sufrido durante el confinamiento". En concreto, el Gobierno Municipal prevé recaudar 1,8 millones de euros con unas ordenanzas fiscales que, en opinión de Jaime Dominguez-Macaya, "permitirán que el Ayuntamiento siga teniendo solvencia financiera para continuar realizando inversiones que permitan mejorar la calidad de vida de las y los donostiarras".